

Zuzia

HATZRESIA APUTZUZ, BIDEA ZABALDUZ

3. Zenbakia

2021eko iraila

BERRIAK



·Gudari Eguna, Leitza.

ATZO, GAUR ETA BETI, GORA EUSKO GUDARIAK!

30 urte iragan dira, Morlans-eko sarraskian guardia zibilak Iñaki Ormaetxea, Patxi Itziar eta Jokin Leunda gudariak akatu zituenetik. 30 urte iragan dira, 1991ko abuztuaren 29an, Bilboko Etxebarria parkean zipaioek Juan Mari Ormazabal "Tturko" gudaria akatu zutenetik ere. Gertakari hauek herri langilearen memorian ahanzturara kondenatuta egon ez daite-

zen eta, gudarien memoria gogora ekartzeaz haratago, hauek defendatutako borrokaren izaera politikoa eta zilegitasuna aldarrikatzeko, lanketa komunikatiboa burutu zuten bai Donostiako zein Bilboko alternatiba iraultzaileko militanteek.

Ildo horretatik, JARKI antolakunde iraultzaileak Gudari Egunari be-

gira, hilabeteko lanketa komunikatiboa burutzeaz gain, ekitaldi politiko publikoa deitu zuen irailaren 25erako, Leitzako herriko plazan. Helburua argia zen. Alde batetik, gudarien dinamikak itzalpeko txokoetatik atera eta plazetara zabaltzea, izaera kualitatiboko pausoa emanez eta maila politikoko konfrontazioan sakontzeko asmoz. Bestetik, nor-

malizazio egoerari aurre egin behar zion izaera iraultzaileko diskurtsoa plazaratzea. Hau guztia lortzeko, izaera publikoko ekitaldia burutzea erabaki zen.

Era berean, ustezko normalizazioarekin bat ez datorren txakurren presentzia jazartzailea agerian uztea zen xedea. Zer esanik ez, txakurrek horrelako ekitaldi baten aurrean, eurek inposatutako normalitate eta bakearekin bat ez zetorren ekitaldia, alegia, presentzia jarraia mantendu zutela Leitzan, bai aurreko egunetan eta baita ekitaldi egunean bertan ere. Gauzak horrela, ekitaldi politikora bertaratzeko asmoa zuten pertsona ezberdinak GAR-ek geldiaraziak izan ziren herri sarreran. Alternatiba iraultzaileak Bilbotik antolatutako autobusa ordu luzez geldituta edukitzeaz gain, honen inguruko informazioa jasotzeko bertaratu ziren bi kazetariak ere identifikatu egin zituzten.

Hala ere, oztopoak oztopo, antolakunde iraultzaileak ekitaldi politikoa gauzatu zuen txakurren mehatxupean. Bertan, Gudari Egunaren eta, oro har, izaera iraultzaileko borroka ororen kokapena egiteaz aparte, Gudari Eguna bezalako datak folklorera eta oroitzapenera mugatzearen ezintasuna azpimarratu zuen antolakunde iraultzaileak. Horrekin batera, adiskidetzeta eta elkarbizitzara zuzendutako dinamiken iruzurra salatu eta hauek porrotera kondenatuta daudela azaldu zuen. Antolakunde iraultzailearen esanetan, Euskal Herriak nazio zein klase parametroetan zapalduta jarraitzen duen bitartean ezinezkoak dira aurrekoak. Izan ere, JARKI antolakunde iraultzailearentzat, borrokatzea ez baita hautu bat, zanpatzen zaituenaren aurrean hortzak erakustea ez baita erabaki bat, behar bat baizik, eta gudariak aurrera eramandako borroka horren baieztapen eta adibide nagusia dugu.

bestarik ez dute eskaintzeko. Euskal Herriko langile klasearen eta burgesiaren arteko borroka hil ala biziko borroka izatean, etsaiarekiko adostasun posiblerik ez dagoela salatzen du antolakunde iraultzaileak. Gauzak horrela, antolatze eta alternatiba iraultzailera batzeko deia luzatu zion antolakunde iraultzaileak Leitzara bertaratutako orori.

·Gudari Eguneko Pikoloen kotrola, Leitzan.



·Gudari Eguneko Pikoloen kotrola, Leitzan.

Ildo horretatik, gudarien borrokaren zilegitasuna azpimarratzeaz gain, borroka oraindik bukatu gabetzat emanda, honen behar-erara jo zuen antolakundeak. Izan ere, JARKI-ren arabera, frantziar eta espainiar estatuek Euskal Herriaren azpirazioa betikotzea helburu duten heinean, ukapena, atxilotaketak, torturak eta erailketak

Euskal Herriak bizi duen azpiratze egoera horren adibide garbia izan dira, aurreko egunetan eta gerora Leitzako alternatiba iraultzaileko militanteak pairatzen ari diren segimenduak eta kontrol poliziala ere. Egoera horretan, Leitzako kide ezberdinak sozialen presentzia jasaten aritu behar izan dira etxeko atariraino.

Ekologismoaren inguruko hitzaldia Donostian

2020. urtean ekologismoaren inguruko eztabaida luzea burutu ondoren, eta afera honen harira posizionamendu politikoa finkatuta, Donostiako JARKI antolakunde iraultzaileko kideek, "Ekologismoa eta kapitalaren auzia" izenpean mahai-ingurua antolatu zuten abuztuaren 6an,

Grosseko Okendo kultur etxean. Bertan, JARKI antolakunde iraultzaileaz gain, AHT gelditu, Erraustegia gelditu eta Aroztegiaren aurkako mugimenduaren kide banak, euren borroken esperientziak partekatzeaz ez ezik, ekologismoaren inguruan eta honek kapitalarekiko duen erla-



·JARKI-ren zozketaren zenbaki saritua zioaren inguruko ikuspuntuak plazaratu eta eztabaidatzeko aukera izan zuten.

4 ATXILOTU IPAR EUSKAL HERRIAN

Frantziako jendarmeriak, irailaren 15ean Lapurdiko 4 gazte independentisten atxiloketa burutu zuen ordu txikitan. Atxiloketa hauen aitzakia uztailaren 14an Donibane Lohitzuneko "Mort pour la patrie"-ko banderak lapurtzea bazen ere, Ipar Euskal Herriko gazteriaren aurkako eraso eta presio dinamika moduan ulertu behar da hau. Izan ere, ez da harritzekoa, Frantziako nazio egunaren aurka uztailaren 14an Donibane Lohitzunen

frantziar okupazioa salatzen zuen manifestazioa burutu eta, bi hilabete eta egun batera, frantziar estatuak jazarpena baliatuta erantzun izana. Gertakari hau Ipar Euskal Herriko gazte independentisten aurka baino haratago, Euskal Herriko mugimendu abertzale eta iraultzaileari zuzendutako abisu eta mehatxu garbia da.

Zenbait ordu komisaldegian igaro ondoren, 4 gazteak aske geratu

ziren kargurik gabe. Iparraldeko gazteria koldartu ordeztzeko balio izan zuen azkeneko razia polizial honek, Euskal Herri Langilearen borrokarako prestutasunaren adibide garbiena izanez. Izan ere, larunbat horretan bertan, irailaren 19an, atxiloketak salatzeko eta frantziar estatuak Euskal Herriaren aurka darabilen jazarpena agerian uzteko manifestazioa deitu eta burutu zen Baionako karriketan zehar.

KLASE FEMINISMOAREN INGURUKO JARDUNALDIAK

JARKI antolakunde iraultzaileak pasa den urtean hasitako dinamikari helduz, klase feminismoaren inguruko jardunaldiak egin zituen irailaren 4 eta 5 bitartean, Gasteizko Aldabe gizarte etxean. Jardunaldi hauen aurre-lanketa bezala, aurreko hilabetearen zehar Euskal Herriko txoko guztietatik deialdia luzatzeko dinamika burutu zen. Era berean, Igor Gonzalez Sola preso politikoaren erailketa zela eta, joan zen urtean bertan behera utzi ziren Durangon hasitako jardunaldien jarraipen gisa ulertu ditu antolakunde iraultzaileak.

Jardunaldi hauen helburua, feminismo burgesaren diskurtsoaren hegemonia apurtzeaz gain, Euskal Herrian apurka-apurka klase feminismoaren diskurtsoari lekua ireki eta horrela klase feminismoaren etengabeko lanketa sutatzea zen. Halaber, une honetan JARDUN – Euskal Herri Langilearen Alternatiba klase feminismoaren inguruko lanketa eraginkorra burutzeko gorpuzten ari den antolakuntza markoen osaketa erraztea zuen helburu.

Jardunaldiak ezusteko berezirik gabe gauzatu ahal izan ziren. Lehenengo egunean bertaratu-takoek, antolakunde iraultzaileak emakume langilearen auziaren inguruan dituen irakurketa eta posizionamendu politikoa entzu-

teko aukera izan zuten goizean. Arratsaldean, berriz, euskal langile andrearen bilakaera historikoaren inguruko hitzaldia eta Euskal Herrian langile klaseak aurrera eramandako borroka ezberdinetan parte hartutako emakume langile ezberdinen esperientzia eta eurek aurrera eramandako borrokak izan ziren hizpide.

Bigarren egunean, goizean hiri edo herri baten analisi feministaren inguruko hitzaldia burutu zen. Arkitektura eta herri zein hiri planteamenduak sexu-genero zapalkuntzari lagundu eta hau betikotzerako orduan gizartean jokatzeko duten paperaren inguruan hausnartzeko aukera

eman zuen honek. Eguerdian, Gaueko sorginek eta, oro har, sobietar emakume langileek historikoki aurrera eramandako borroka inguruko hitzaldia eman zen. Arratsaldean, emakumea eta kartzelaren inguruko mahai-ingurua egin zen hiru militante iraultzailearen eskutik, militante bakoitzak espetxealdiaren eta militantziaren inguruko esperientzia partekatzeke beta izan zuelarik. Azkenik, JARKI antolakunde iraultzailearen ekitaldi politikoak eman zien itxiera jardunaldiei.



·Klase feminismoaren inguruko jardunaldiak, Gasteiz.

JARDUN-EN AURKEZPEN ZIKLOA ARABAN

Aurreko hilabeteetan zehar Bizkaian eta Gipuzkoan burututako aurkezpen ibilbidea jarraituz, irailean zehar Arabako alternatiba iraultzaileko kideek, JARDUN – Euskal Herri Langilearen Alternatibaren aurkezpen ezberdinak burutu dituzte herrialdeko txoko ezberdinetan. Bide horretan, irailaren 11n Izarran,

irailaren 15ean Gasteizko gaztetxean, irailaren 18an Kanpezu eta irailaren 29an Gasteizko Errekaleor auzo askean aurkezpenak egin zituzten JARDUN-eko kideek. Aurkezpen hauek alternatiba iraultzaileak aurrera daraman sozializazio kanpainaren baitan kokatu behar ditugu. Euskal Herri Langileari alternatiba iraultzailearen beraren helburuen, funtzio-

namenduaren, izatearen eta aurrera daramatzan dinamiken berri emateaz gain, bertaratzen diren pertsona ezberdinen zantzak eta edozelako galderak nahiz argibideak emateko baliatzen ari dira aurkezpen hauek.

GUDARIEN ALDEKO MANIFESTAZIOA ETXARRIN

Abuztuaren 2an Sakanako JARDUN-ek deituta, manifestazioa burutu zen Etxarriko jaien testuinguruan. Juan Ignazio Erdozia Lasa "Axio", Pello Mariñelarena Imaz eta Josu Zabala Jauregi "Basajaun"-en oroitarrien desagerrarazpena salatzea zuen helburu nagusizat manifestazio honek. Horretarako, gertakaria salatzeke herriko plazan egindako irakurketaren ondoren, manifestazioa abiarazi zuen alternatibak Etxarri-Aranatzeko kaleetan barrena, herriko sarrerako rotondan bukatu zelarik.

Manifestazioari amaiera emateko leku hori hautatzea ez zen ausazkoa izan. Izan ere, ordubete lehenago, Etxarri-Aranatzeko zenbait solidariok desagerrarazitako oroitarrien erreplikak jarri zituzten errotonda horretan, herriko sarreran, alegia. Hala, herri guztiak ikus zezan eta Etxarri-Aranatzeko gudarien memoria presente egon zedin era nabarmen eta publikoan.

Manifestazioaren ostean, Sakanako alternatiba iraultzaileko kideek jakinarazi dutenez, 3 astetan zehar itogarriak izan dira guardia

zibilaren presentzia eta kontrolak Etxarri-Aranatzeko. Indar jazartzailerak eta espainiar estatuak edozelako disidentzia politikoa zanpatzerako orduan erakusten duten jarreraren adibiderik argienak ditugu horrelako erantzunak, ez direnak, inolaz ere, ezohiko eta isolatu gisa ulertu behar, espainiar zein frantziar estatuak Euskal Herriaren aurka darabilten estrategiaren parte gisa baizik.



KONTSUMO ONDASUNEN ALOKAIRUAREN HEDAPENAZ

Gaur egun ohikoa da langileok etxeak, autoak, pelikulak, musika... alokatzea. Aurreko belaunaldiek, ordea, ondasun horiek erosteko joera eta aukera handiagoa zuten.

KLASE GATAZKA

Zapaltzaileen eta zapalduon arteko gatazkak goitik behera zeharkatzen du edozein gizarteren historia eta garapena. Europar testuinguruan, XIX. mendean zehar burges eta langileen arteko gatazka gisa zehaztu zen klase gatazka: ekoizpen baliabideen jabeak, alde batetik, eta haien lan egiteko gaitasunaren jabe direnak, langileak, beste aldetik.

Garai hartako langileria "proletalgo" gisa izendatzen zen, oro har, haien lan-indarraren eta seme-alaben (prolearen) jabetza besterik ez zutenen klasea zen eta. XX. mendean zehar, enplegu eta lantokietako lan baldintzak hobetu eta jabetzak izateko aukera izan zuten langileek, betiere, langile borroka zein iraultzei esker. Hau da, langile eta burgesen arteko klase gatazka, etsaien arteko gatazka bat bezala ulertu behar da, derrigorrez: etsaiak aurrera egiten badu, guk atzera egin dugulako da. Logika hau soldatetan antzeman daiteke, esaterako: langileok ekoizpen berdinarekin soldata handiagoa lortzen badugu lantokian, burgesek etekin txikiagoa izango dute. Baina logika hau ez da soilik aspektu ekonomikoan ematen, terreno politikoan ere ematen da: burgesak langileak gero eta otzanago egotea du helburu. Gero eta manifestazio gutxiago, antolaketa gutxiago, protesta gutxiago, langileon ahalmen txikiagoa... burgesak erosoago egongo dira haien zapalkuntza burutzen, iraultza baten aukera urrun mantenduz.

Langileon borroka eta aldarrikapenak beherantz joatean, burgesiak langileonganako erasoak modu irekian eta lotsagabeen burutzen ditu. Bere errekurtsu guztiak erabiltzen ditu etekina ahalik eta gehien handitzeko eta bere boterea indartzeko. Aspektu ekonomikoan trikimailu legalak erabili ohi ditu bere zerga zein ordainketak gutxitzeko (legeak moldatuz, esaterako), langileon eskubideen gaineko inboluzioak burutzen ditu...

Esparru ekonomikotik kanpo, droga eta apustuak sustatzen ditu, edota helbururik ez duen aisialdi kontsumitzailea hedatzen du langileongan... Azken finean, etsaiak bilatzen duen ondorioa zapalduok gure zapalketa normaltzat hartzea da.

EROSKETATIK ALOKAIRURA

Aurreko atalari so eginik, gaur egun ematen ari den kontsumo ondasunen alokairuaren hedapena klase gatazkaren baitan ulertu beharra dago: jabetza gutxiagorekin gure bizitzaren gaineko kontrola gutxituz doa. Alokairuaren hedapena oso esparru ugarietan ematen da, batzuk ezagunak eta beste batzuk berriak: etxebizitzak, autoak eta garraioa, oro har, filmak eta telesailak... Esparruak azaltzen hasi baino lehen, garrantzitsua da gogoraraztea langileon enplegu baldintzek zeresan handia dutela ondasunak erostearen edo alokatzearen hautuan, batzuetan langileontzat aukera bakarra ondasunen alokairua da eta.

XX. mendearen azken herenean langileen ohiko helburua zen etxebizitza erostea. Gaur egun, ordea, ez da hain helburu gauzagarria etxebizitza bat erostea. Etxebizitzen prezioak gora egin du aurreko mendeko azken hamarkadetatik hona, soilik etekin ekonomikoa helburutzat duen espekulazioarentzat etxebizitza joko-eremua izan da eta. Honen ondorioa argia da: enplegu baldintza okerren areagotzearekin, langileok gero eta zailagoa dugu etxebizitza bat kolpez ordaintzea edo hipoteka batean sartzea.

Autoen kasuan, 2008ko kapitalismoaren krisi globala baino lehen, autoa alokatzea opor bidaiekin, aisialdiarekin, laneko bidaiekin, auto lasterketekin... zegoen harremanduta. Adibidez, aste betez alokatzen zen autoa auto-alokairu enpresa batekin. Gaur egun, aldiz, autoen alokairua egunerokotasuneko mugikortasunean txertatzen ari da. Norberak auto propioa erosi ordez, beste kontsumo eredu bat hedatzen ari da automozio industriatik: auto fabrikatzaileari autoa bera alokatzea 2 urtez, 4 urtez, edo kontratuaren arabera. Kontratu mota ugari daude, batzuek autoaren mantentze-lana (neumatiko aldaketa, olio aldaketa, aseguru...) barneratzen dute alokairuan. Kontratuan zehaztutako denbora epea igarota, kotxe berria (modelo berriena, oro har) alokatzeko aukera dute kontratu hauen kontsumitzaileek. Gaur egun formula hau ez da langile sektore zabalenetara eta pauperizatuenetara hedatu.

Aisialdiarekin jarraituz, ikus-entzunezko edukien erosketak beheranzko joera du nabarmenki, alokairuaren mesedetan. Gaur egun bideo-klub fisiko gutxi geratzen dira irekita Euskal Herrian, eta antzeko

egoeran daude diska eta musika dendak. Teknologiaren garapenari esker, haien funtzioa plataforma digitalek burutzen dute gaur egun. Hori bai, ikus-entzunezko edukiaren bolumenari begira bideo-klubak eta musika denda baino askoz hedapen handiagoa lortzen ari dira enpresa hauek. Telesail eta filmeen bisualizazioa (alokairuan) ohiko kontsumoa bilakatu da egungo langile klasearen sektore zabaletan. Musikaren esparruko plataforma digitalekin antzeko egoeraz hitz egin daiteke.

Atal honekin amaitzeko, alde batetik. eguneroko bizitzako ondasunen esparruan arropa garbigailuen erabilpena aipa daiteke. Herri eta auzoetan hedatzen dabiltzan auto-zerbitzuen bitartez, langileok ez dugu arropa garbigailua zertan erosi behar (etxebizitza alokairua baldintza okerrean burutu beharraren ondorioa izan daiteke egoera hau). Bestetik, kontrako aldean, luxuzko ondasunen alokatzea aipa daiteke, langileok egun batez edo aste batez gure klase izaera ahaztu eta ideologia menperatzailearekin bat egiteko diseinatuak: hotelen edo diskoteken alokairua, itsasontzien alokairua...

ESPLOTAZIO EKONOMIKOTIK ETA GATAZKA POLITIKOTIK HARATAGO

Orain artekoa laburtuz, alokairuaren hedapena klase gatazkaren ondorio gisa ulertzen dugu: gero eta jabetza eta ahalmen gutxiagorekin nahi gaitu burgesiak, guk haiei eraso egiteko aukera deuseztatzeraino. Kontsumo ondasunik ez izatera ohitu nahi gaituzte, XIX. mendeko "proletario" izatera bueltatzera, alegia. Burgesek, langileon baldintzak okertuz kontsumo ondasunak erosteko ezintasuna baliatzen dute ondasunen alokairua hedatzeko, baina ezin dugu gure begirada soilik aspektu ekonomikora mugatu. Burgesek ideologia zapaltzailea dute tresna garrantzitsu gisa haien esplotazioa justifikatzeko, eta beste elementu ugari erabiltzen ditu langileon artean erosketa ordeztu alokairua sustatzeko, zapalduok alokairua asimila dezagun.

Esaterako, kapitalismoak zabaltzen duen ideia garrantzitsu bat askatasuna kontsumoaren bitartez

gauzatzen dela da. Haien esanetan, zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta askeagoak gara gizarte honetan, baina kontsumo erritmo hori erosketekin mantentzea zaila da langileontzat. Hortxe agertzen da ondasunen alokairuaren aukera. Aspektu sozial gisa, aipatu beharra dago kapitalisten arteko lehiakortasuna oinarri duen gizarte batean itxurak garrantzi berezia hartzen duela: indartsuenaren irudia, berrienaren irudia, pertsona arrakastatsuenaren irudia... Logika honetan, alokairuaren malgutasunak (urte batean hau, hurrengoan hura...) ondasunen erosketaren zurruntasuna gainditzen du: arrakastatsuak izan behar dugunez, azkeneko autoa, azkeneko mugikorra... eduki behar dugula sinestarazten digu ideologia zapaltzaileak. Ezin dugu ahaztu burgesiaren interesak defendatzea helburu duten hamaika ideia eta jarrera jasaten ditugula egunerokotasunean.

ONDORIOAK

Ilatziaren ondorioak argitzearen, ez da ondasunen erostearen aldeko apologia burutu nahi ezta alokairua mespretxatu nahi. Klase gatazka hizpide hartuta, alokairuaren hazkundeak ze logika duen agerrarazi nahi da, besterik ez. Azken finean, ekoizpen baliabideak burgesen esku dauden bitartean, langileok ondasunen jabetza izateak ez du aldaketa kualitatiboa suposatzen klase emantzipazioari begira. Aldi berean, ezin dira historian atzerapausoak eman iraganaren irakurketa erromantikoa eginez, aurreko belaunaldien ondasunen erosketa gaitasuna idealizatuz.

Ondasunen erosketaren eta alokairuaren arteko afera, itxuraz langileontzat suposatzen duen aspektu ekonomikotik haratago landu behar da, klase gatazkaren ikuspuntutik, hain zuzen: etsaien arteko borroka esparru gisa. Gero eta estutuago nahi gaituzte, bai lantokian, bai gizartean, oro har, injustizia egoera iraultzea gero eta zailagoa izan dadin.



EMAKUME LANGILEAREN ZAPALKUNTZAREN OINARRIA

Sistema kapitalistaren baitan langileak beraien lan-indarra saltzera behartuta daude, ezinbestekoa zaielarik energia berreskuratzeko behar ezberdinak asetzea. Hori egin ezean, ekoizpen prozesua etenda geratuko litzateke, burgesak ezingo bailuke klase esplotatuaren lepora etekinik atera eta ekoizpen eredu kapitalista iraupena bermatu. Gauzak horrela, kapitalak harreman patriarkalak, hots, emakumeen eta gizonen arteko dominazio harremanak bereganatu ditu, lan-indarraren birprodukzioaren gaineko kontrola ezarriz. Generoak, historikoki sortu eta zilegiztatu den eraikuntza sozialak, emakumeari sexuan edo ezaugarri biologikoetan oinarritutako rol jakin batzuk ezartzen dizkio, zaintzaile irudierekin lotuta daudenak gehienbat. Izan ere, lan-indarraren hornikuntza beti eskura eta era jarraian egoteko eginbehar ezberdinak esleitzen zaizkio emakume langileari, produkzio prozesua martxan egon dadin. Horretan datza, hain zuzen ere, birprodukzio soziala.

Kapitalismoan, ekoizpen prozesuan saldutako lan-indarraren truke burgesak soldata bat ordaintzen dio langileari. Soldata honek, egunero lan-indarra berreskuratzeko beharrezkoak diren ondasunen balio berdina dauka eta, horrekin, biziraupenerako beharrezkoak dituen produktuak erosten ditu merkatuan, bai berarentzat zein familiako gainerako kideentzat. Horrekin ez da nahikoa, ordea, produktu horiek kontsumitzeak ere lana eskatzen du, etxeko lana, alegia: jakiak sukaldatu egin behar dira, arropa zikinak garbitu egin behar dira, etab.

Ildo horretatik, birprodukzio soziala hiru esparrutan gauzatzen da. Lehenik eta behin, langileek lan egiteko gaitasuna berreskuratzeko behar fisiko zein psikologikoak ase behar dituzte: jatea, lo egitea, arropa konpontzea, zaintza emozionala... Zaintzan oinarritzen diren lan horiek egin ezean, ez lirateke lan-indarra saltzeko baldintza egokietan egongo.

“kapitalak harreman patriarkalak, hots, emakumeen eta gizonen arteko dominazio harremanak bereganatu ditu, lan-indarraren birprodukzioaren gaineko kontrola ezarriz.”

Aitzitik, ekoizpenean zuzenean parte hartzen duten langileak ez dira mantenurako jarduerak behar dituzten bakarrak. Arrazoi ezberdinengatik lan-indarra saltzen ez duten langile klaseko kideek ere berdin behar dituzte bizirauteko ekintza ezberdinak.



Horien artean egongo lirateke adinekoak, gaixorik daudenak, desgaitasunen bat dutenak... Eta baita seme-alabak ere, hauexek izango baitira etorkizuneko ekoizleak eta, horrenbestez, hauen zaintza nahiz heziketarako jarduerak ere nahitaezkoak dira.

Bestalde, gogoan eduki behar dugu langileak ez direla betirako ekoizten egongo. Horren aurrean, etorkizuneko lan-indarra ere ziurtatu behar du kapitalistak. Hori dela eta, emakumeen ugaltzeko gaitasuna baliatzen da, hots, birprodukzio biologikoa, langileen belaunaldien etengabeko jarraipena bermatzeko. Izan ere, soilik emakumeak daude biologikoki prestatuta honetarako, baina kontuan hartu behar dugu menpekotasun egoera sustatzen duena ez dela gaitasun biologikoa bera, honen gainean kapitalak ezarritako kontrola baizik. Hau da, ez da ezaugarri biologikoa bera zapalketa sortzen duena, baizik eta honi kapitalak ematen dion erabilera.

Gauzak horrela, emakume langilearengan ezarri denez jardun birproduktiboaren ardura, honek paper garrantzitsua jokatzen du kapitalistarentzat. Jardun hori batez ere familiaren esparruan burutzen da, kapitalarentzako kostu handirik eduki gabe eta

ekoizpen prozesutik kanpo, ezkutuko izaera edukiz eta gizarte mailan gutxietsia izanez. Hortaz, lan-indarraren birproduktzio prozesua etxean gauzatzen da batik bat, eremu pribatuan, alegia. Emakume langilea horretaz arduratuko ez balitz, baliabide gehiago bideratu beharko lirateke gizarte zerbitzuetara edo, bestela, soldatak igo beharko lirateke beharrianak asetzeko baliabide ezberdinak lortzeko.

Nolanahi ere, emakumeak arlo produktiboan parte hartzeak kontraesana suposatzen du kapitalistarentzat. Alde batetik, emakume langileak familiako alor pribatuan jarduten badu soilik, ezin du esparru produktiboan parte hartu eta, beraz, ezin zaio honen lan-indarrari osotariko etekina atera. Bestetik, emakumeak ekoizpen prozesuan parte hartuz gero, arriskuan jar daiteke lan birproduktiboa. Hala ere, egoera horren aurrean, kapitalak ez du emakume langilearen lan-indarra erabiltzeko aukera baztertzen, emakume zein gizon langileen soberakinaren erauzketarekin esplotazio eta etekin maila handiagoa lortzeko aukera dauka eta.

“kapitalismoak jardun produktiboa eta birproduktiboa uztartzea lortu du, emakumea muturreraino esplotatuz eta izaera laguntzaileko lana esleitzuz.”



“emakume langileak etxean egindako jardueri eta zerbitzuei esker, langileek beraien lan-indarra sal dezakete produkzioarako eta langile klaseko beste kideen zaintza ere ziurtatuta dago.”

Kontraesan hori gainditzeko asmoz, kapitalismoak jardun produktiboa eta birproduktiboa uztartzea lortu du, emakumea muturreraino esplotatuz eta izaera laguntzaileko lana esleitzuz. Emakumeak produkzioan izan duen edota duen presentzia bigarren mailakotzat jotzen da, lehenengoa birproduktzioa izanez. Lanaren banaketa sexual argia ematen da, beraz, generoaren eraikuntza soziala irizpide izanik era jakin bateko jarduera motak burutzen baitira. Horren erakusgarri dira lanpostu edo sektore feminizatuak, besteak beste, garbiketaren sektorea. Hala, emakumeak familia eredu tradizionalaren baitan duen menpeko posizioa produkzioaren esparrura igaro da, honen zaintzaile rola ezbaian jarri gabe.

Kapitalak, ordea, lan birproduktiboa eta lan produktiboa elkarrengandik isolatutako bi prozesu banandu bezala ikustea sustatzen du, bi eremu hauen arteko harremana ezkutatzeko xedez. Izan ere, etxeko lanari, sozialki emakumeari egokitzen zaionari, lan izaera bera ukatzen zaio, gizartean bi eremuen bereizketaren ideia barneratzea eraginez. Alde batetik, eremu pribatua, prozesu birproduktiboa edo soldatapekoa ez den lana garatzen den gunea, ezkutuan dagoena, eta, beste aldetik, eremu publikoa, prozesu produktiboa edo soldatapeko lana nahiz bizitza sozial eta politikoa burutzen diren gunea, guztiz agerikoa dena.

Hala ere, nahiz eta esparru ezberdinetan gauzatu, elkarren menpe daudenez gero, prozesu banaezinak dira berez. Izan ere, nahiz eta zuzenean produkzio modu kapitalistaren parte ez izan, emakume langileak etxean egindako jardueri eta zerbitzuei esker, langileek beraien lan-indarra sal dezakete produkzioarako eta langile klaseko beste kideen zaintza ere ziurtatuta dago. Gainera, soldataren bitartez erosten dira lan-indarraren birproduktzioa ahalbidetzeko baliabide ezberdinak. Bestalde, kontuan eduki behar dugu emakumearen menpeko egoera arlo produktiboan ere aurkitzen dela, familiaren esparrutik haratago.

Ondorioz, edozein ekoizpen prozesu hertsiki lotuta dago unean-une dagokion prozesu birproduktiboarekin, elkar-elikatzen diren prozesu banaezinak diren heinean. Era horretan, kapitalak behin eta berriro sustatzen du emakume langilearen aurkako zapalkuntza eta esplotazioa, bai birproduktzioaren papera egotziz eta baita bere lan-indarraren erauzketa burutuz ere.



·Luditak, XIX. mendeko Erresuma Batua.

MAKINAK, LANGILEON ETSIAK?

Mendeetan zehar, lantegietan zein landa eremuan makinak txertatzeak enplegu galera suposatu izan du. Honek, lanpostuen defentsan makinaren aurkako langileen ekintzak eta diskurtsoa sustatu izan ditu historian zehar.

“Lantegietako jabeek makina garatuagoak erosi eta lantegietako soldatapeko langileen zati bat kaleratzea ohiko gertaera izan da kapitalismoaren pean”

Industrializazio garaitik hona, makinaren aurkako ekintzak burutu izan dituzte langileek. Lantegietako jabeek makina garatuagoak erosi eta lantegietako soldatapeko langileen zati bat kaleratzea ohiko gertaera izan da kapitalismoaren pean, eta horrela darrai. Kalera-tzeak jazotzean, lantegien inguruan langabeziak gora egiten zuen, enplegurik gabeko langileen eta haien senideen bizi baldintzak

azkar eta asko kaskartzen zirelarik.

Ondorioz, senak bultzatuta enpleguen defentsan aritzen ziren langileak, protestak, grebak edota makinaren aurkako erasoak eginez. Makinaren haien etsai gisa ulertzen zituzten, itxuraz makinek kalera-tuak izan zirelako.

Langileen jarrera eta ekintza honi forma emanez, “ludismo” mugimenduaz hitz egingo dugu. XIX. mende hasieran Erresuma Batuan jazotako gertakarien inguruan kokatzen da mugimendu honen jatorri historikoa. Muturreko bizi baldintzen aurrean, langileek makinak (ehungailuak, besteak beste) eta lantegiak erasotzen zituzten. Alde batetik, makinaren aurkako gorroto gisa ulertu daitezke ekintza hauek: “itxuraz langabeziara bultzatu nauena makina da!”. Hala ere, mugimenduaren inguruko beste irakurketa bat jabeekiko presio ekintza moduan garatutako mugimendu

bezala identifikatzea da: kalera-tzeak ekiditeko, soldatak igotzeko... sabotai ekintzak burutzen zituen. Hori bai, ez zen, inolaz ere, sindikatuen antolakuntza mailara hurbildu.

Gaur egun, logika berdina duten egoerak ematen dira lantokietan: teknologian ematen diren berrikuntza amaigabeek “langabezia uzten dituzte” langile sekzio osoak, edota garraioen eta komunikabideen garapenari esker, jabeek herrialde batetik bestera mugitzen dituzte lantegiak, langabeziak gora egiten duen lurraldean “atzeratu begirako” sentipenak sorraziz: “makina eta teknologia berriak iritsi baino lehen hobeto geunden”.

Gizartearen ikuspuntu zabaletik, makinek zein erremintek bizitza erosoagoa eta hobea ahalbidetu dezakete. Nekazal erremintak garatzean, elikagai gehiago eta ugariagoak lortzen hasi eta animalien ukuilurak asko

hobetzen hasi zen. Osasungintza, garraioak, etxebizitzaren garapena, aisialdia...

Baina ekoizpen prozesuari so eginik, zer suposatzen du makina eta teknologia berriagoak sortzeak?

Lanabesak, makinak, garraio-bideak, telekomunikazioak... garatzeak lan teorikoa, ikerketa lana eta froga epea suposatzen du. Adibidez, lurra iraultzeko rotabatorea garatzea prozesu luzea izan da, elementu elektrikoak, elementu mekanikoak, eztanda-motorra... barnebiltzen dituelarik. Hala ere, behin asmatuta, bere sorreran erabilitako orduak ia momentuan amortizatzen dira, urtero mundu osoan zehar milaka eta milaka ordu aurrezten dizkielako makina horrek nekazari eta langileei. Berdina gertatu da landa eremuan traktorearekin, edo industrian makina-erreminten garapenarekin, garraioaren esparruan auto azkarragoen garapenarekin...

Fikzio bidez ilustratzearren, makina garaturik gabe, torlojuen ekoizpenean langile ugari zeuden lantegian aldi berean. Makina garatuagoak sortzeko egindako ingenieritza lanak, ordea, makina semi-autonomoak sortzea ahalbidetu du, epe luzera makinak erabili ahala, pertsonoi lana aurreztuz. Munduan behar diren torlojuen ekoizpenean gero eta lan gutxiago egin behar dugu pertsonok, makinek burutzen dute eta. Horrela gertatzen da industria eta zerbitzuetako adar guztietan, bizitzarako behar ditugun oinarritzko baliabideen ekoizpena barne: etxebizitza, arropa, elikagaiak...

Hala ere, gizartean makinei esker adar guztietan gero eta lan gutxiago badago, egunero 4 ordu lan egitearekin nahiko izango litzateke, gure eguneko orduen gehiengoak aisialdira, kulturara, ondo lo egitera... bideratuz. Aspektu hau ulertzeko gakoa kapitalismoak jo eta su defen-

datzen duen jabetza pribatua datza.

Klase gatazka alde batera utzita, makinek bizitzarako behar ditugun ongien ekoizpenerako lana aurretzen dutela ikusi dugu. Dena den, langileek ez dute merkantzia bat ekoizteko beharrezkoa den lanaren aurrezte hori haien baitan jasaten: batzuk berdin berdin jarraitzen dute lanean gelditu barik, eta beste batzuk langabeziara doaz. Lantegien, makinaren eta lurraren jabetza pribatua izanik, burgesena hain zuzen, haiek dute ekoizpenaren gaineko kontrola. Hau da, ezin dugu makinaren afera klase gatazkatik isolatu.

“talde isolatu batek kooperatiba bat eratzeak ez du alternatibarik suposatzen gizarte osoko langileentzat. Iraultzaile bezala helburua ez da merkatu txikiak sortzea, merkatua eta trukea desagerraraztea baizik.”

Demagun XX. mendearen azken herenean lurjabe handi batek 8 langile zituela lanean, lurra lantzen, uzta jasotzen, lanabesen mantentze-lana egiten... Nekazal azoka batean burgesak traktorea eta uzta-makina bat erostea erabaki zuen, esplotazio bidez lortutako etekinak baliatuz. Bi ibilgailu berri horiekin zortzitik 6 langile kaleratzeko aukera izan zuen, bere lurak lantzeko makinei esker aurretzen zituen lan orduen baliokidea, hain zuzen. Horrela, eremu berdina 2 langilerekin lantzen hasi zen, uzta berdina lortuz, eta merkaturaren berdina salduz. Hori bai, ordutik aurrera 6 soldata aurreztuko zituen hilabetero.

Traktorea, lurak eta uzta-makina burgesarena izanda, esplotazioaren etekin guztiak berarentzat doaz. Aldiz, 8 langileek lurra, traktorea eta uzta-makina

partekatuko balituzte, bakoitzak egunero ordu gutxiago sartuz, merkaturaren uzta kantitate bera trukatu ahalko lukete, bizitzeko ongiak berdina-berdin lortuz. Inork ez luke langabezia jasan beharrik izango.

Hau, noski, fikziozko adibide bat da, ekoizpenaren eta jabetzaren logika ulertzeko, besterik gabe. Azken finean, talde isolatu batek kooperatiba bat eratzeak ez du alternatibarik suposatzen gizarte osoko langileentzat. Iraultzaile bezala helburua ez da merkatu txikiak sortzea, merkatua eta trukea desagerraraztea baizik.

Makinak tresnak dira, eta edozein tresna bezala hamaika modutara erabili daitezke. Modu egokian erabilia, makinek pertsonok elikatzeko, babesteko, zaintzeko, garraiatzeko... erabili behar dugun lan kantitatea erabat murriz dezakete.

Traktoreen adibidearekin ikusi dugunez, ekoizpen baliabideen jabetzaren inguruan ematen da klase gatazkaren borroka zentrala. Ekoizpen baliabideak (lantegiak, tresnak, lurra...) gizarte osoan kolektibizatuz, egunero burutu beharreko lan orduak murriztu eta langabezia desagerraraztea da helburua, gizarteak behar dituen ongiak berdina-berdin ekoiztuz.

Testuaren hasierako testuingurura bueltatuz, eta epe motzera begira, edozein lantokitako jabeak langileak kaleratzeko badiu teknologia batzuk txertatu dituelako ekoizpenean, enpleguen defentsaren borroka guztiz zilegia da, bizi baldintzak mantendu eta hobetuz. Hala ere, kaleratzeen oinarritzko kausa ezin da ez ahaztu, ez alboratu: ekoizpen baliabideen jabetza pribatua. Ekoizpen baliabideak partekatuta, denok ordu gutxiago lan egingo genuke, merkantzia eta zerbitzu berdinak ekoiztuz. Helburua? Independentzia eta Sozialismoa. Bidea? Antolakuntza eta borroka.

ATXILOKETA, TORTURA ETA ESPETXEA

Etsaiak inolako gupidarik gabe jazartzen ditu militante politikoak, sufrimenduaren eta suntsiketaren bidez inolako babesik gabe utziz. Hala, Euskal Herrian asko izan dira etsaiaren jazarpenaren aurpegi ezberdinak jasan behar izan dituzten militante iraultzaileak, etsaiak eskura dituen errepresio forma ezberdinak erabiltzen baititu, mugimendu iraultzaile eta borroka oro gelditzeko asmoz.

Izaera polizial zein militarreko instituzioek zuzeneko kontrola burutzen dute era sistematiko eta zehatzean. Gauzak horrela, atxiloketa, pertsonaren babesgabetasuna, zaurgarritasuna eta nahasmena sortzea helburu duen ekintza da, nagusitasunean eta neurririk ez duen indarraren erabileran oinarritzen dena. Horrez gain, militante politikoak espetxeratzeko edota torturatzeko ere baliatzen dira atxiloketak. Baita gizartearen imajinario kolektiboan ezegonkortasuna, beldurra eta mehatxua sortzeko ere. Azkenean, jazarpen polizialaren bidez sorturiko figura honen bitartez, etsaiak, estatuak eta honen instituzioek dituzten nagusitasuna, gaitasuna zein

boterea erakusten eta berresten ditu, menpekotasun egoera eta beldurra sustatuz.

Atxiloketekin batera etsaiak jazarpen polizialaren baitan baliatzen duen tresna da tortura. Hasiera batean tortura erabilera publikoko elementu bezala hartzen zen. Izan ere, Antzinaroan konfesioa zen froga elementu nagusia eta hau lortzeko tortura baliatzen zuten. Tortura instrumentu gisa Antzinako Grezian agertu zen, konfesioak erruduntzat froga gisa lortzeko tresna gisa, tortura arautzeko legeak jarri zirelarik martxan. Gerora, Erromatar Inperioan erromatar zuzenbidearen baitan jaso zen. Erdi Aroan, inkisizioaren papera medio, konfesioa froga nagusi bilakatu zen eta XIII. eta XVIII. mendeen artean tortura prozedura penalaren parte izan zen. Dena den, aipatu beharra dago torturak garai horretan ez zeukala zigortzeko helbururik, frogatzekoa baizik. XVIII. mendearen amaieran Frantziar Iraultzan gizonaren eta hiritarren eskubideen adierazpenekin tortura arbuiaua izan zen, honen erabilera legez kanpokoa bilakatuz, estatuen mekanismoaren baitan mantendu zen arren. Hala ere, legez kanpo kokatzea





ez zetorren gizatasunetik, zigor forma berrien eta kriminologia frogak eskuratzerako orduan garatutako teknika berrien eskutik baizik. Era horretan, XIX. mendetik aurrera tortura disidentzia politikoaren aurkako tresna gisa bilakatu zen, egun ezagutzen dugun torturaren kontzeptua eraikiz.

Gaur egun, arma politiko bezala erabiltzen du tortura estatuak, pertsonak kontrolatzeko eta disidentzia politikoa suntsitzeko baliabide gisa. Era horretan, tortura, funtzionario publiko batek edo funtzio publikoetan ari den norbaitek pertsona bati eragindako izaera fisiko edota psikologikoko sufrimendu latzetan oinarritzen da. Torturaren helburu nagusiak ondorengoak dira: erruduntasuna frogatzeko informazioa lortzea, egindakoagatik edo ustez egindakoagatik zigortzea, makurraraztea eta beldurtzea honek gizartean sortzen duen izuarekin eta, azkenik, pertsonaren nortasuna suntsitzea, batez ere, ondorio psikologikoak eraginez.

Halaber, torturak agerian uzten ditu indarrean dirauten menderakuntza nazional eta soziala. Denbora aurrera joan ahala gizartean iritzi, legedi eta itun nazionalak sortu badira ere, tortura bera baztertzea lortu beharrean, honen arrastoa begi bistan uztea ekidin da, horretarako forma ezberdinak garatuz. Gauzak horrela, estatu batek ez du sekula onartuko tortura modu sistematikoan erabili duenik. Are gehiago, beraien onurarako baliatzen dituzte instituzio publikoek adierazitako isiltasuna edo zuzenean ekintza hauek ezkutatzeko jarrera.

Tortura metodoei dagokienez, bi mota bereiz daitezke. Batetik, metodo fisikoak, hau da, oinaze fisikoa, neke fisiko handia eta heriotzaren berehalakotasuna bezalako sentsazioak sorrarazten dituzten teknika fisikoak.

Esaterako, gorputzeko atalak instrumentu ezberdinekin kolpatzea, gorputzaren atal sentiberetan deskarga elektrikoak aplikatzea, itotze tekniken bitartez denbora zehatz batean oxigenoa kentzea konortea galtzeraino (poltsa eta bainuontziaren metodoak), bortxaketa eta neke fisikoa eragitea, besteak beste, ohikoak ez diren jarreraren bidez.

Metodo psikologikoak, aldiz, eraso fisikorik gabe pertsonaren egoera psikologikoari eragiten dioten teknikak dira. Aipatu beharra dago, metodo fisikoak baino eraginkorragoak direla. Zaila izan ohi da, azkenean, sendotasun psikologikoa entrenatzea eta, gainera, teknika hauek ez dute azaleko marka antzemangaririk uzten. Are gehiago, metodo honen bidez, pertsona muturreraino eraman eta haustea lortzen dute. Izan ere, erruduntasun sentimendua sortzen da pertsonarengan, ezin baitu ulertu nola aitortu duen tortura fisikorik pairatu gabe.

“Burgesiak bere interesetara egokituriko kode legalaren arabera, gobernuaren aurka egitea delitutzat jotzen da, horren aurrean zigorra baliatzen delarik disuasio-elementu gisa.”

Teknika psikologiko ezberdinak baliatzen dituzte: ikusmena eragozte, jatea edo lo egitea bezalako oinarritzko beharrianak mugatzea, biktima gehiago torturatzeko, hiltzeko edo ingurukoaren aurkako mehatxuak, umiliazioak eta irainak, denboraren kontrola ukatzea, polizia onaren eta gaiztoaren paperak, behin kalean egonda torturatzailleetako bat hurbildu eta bizitakoa gogoraraztea, galdeketa luze eta etengabeak, tortura metodoen artean aukeratzea, tortura sexualak, erruduntasun sentimendua eragitea “familia hautsi duzu” gisakoekin, tortura eta exekuzio simulazioak, beste torturatu baten oihuak entzutea, tenperatura aldaketa nabarmenak, drogen erabilera, soinu bidezko erasoak belarrira etengabe oihu eginez edota ziegan uneoro argia piztuta egotea.

Burgesiak bere interesetara egokituriko kode legalaren arabera, gobernuaren aurka egitea delitutzat jotzen da, horren aurrean zigorra baliatzen delarik disuasio elementu gisa. Gauzak horrela, zigor hori aplikatzeaz arduratzen den instituzioa dugu espetxea.

Hau sortu zen unetik, Antzinarotik, zigorraren lotutako instituzioa izan da. Nolanahi ere, historian zehar bere bilakaera izan du, unean une

gizartearen eta zigorraren kontzeptuaren arabera. Erdi Aroan, espetxearen bidez zigortuak ihes egitea ekiditen zen, honen inguruko erabakia eta zigorra zehaztu bitartean. XVI. mendetik aurrera, ordea, zigor fisikoak gero eta babes eta zilegitasun txikiagoa zuen. Hori dela eta, hurrengo mendean askatasunaren ukapenean oinarrituriko zigorrak ezartzen hasi ziren, izaera humanitarioko neurri bezala aurkeztuz. Ildo horretatik, egungo kartzelaren kontzeptua kapitalismoaren sorrerarekin batera sortu zen, langile klasea zuzentzeko neurri bezala, hau mehatxatuz eta torturatuz. Egoera horretan, zuzenbide penala langile klasea eta, batik bat, jabetzaren aurkako delituak zigortzean oinarritzen zen.

"disidentzia politikoa eta indarrean dagoen sistemarekin bat egiten ez dutenak zigortzera bideratutako tresna da kartzela, hauek fisikoki nahiz psikologikoki suntsitzea duena xede."

Egun, disidentzia politikoa eta indarrean dagoen sistemarekin bat egiten ez dutenak zigortzera bideratutako tresna da kartzela, hauek fisikoki nahiz psikologikoki suntsitzea duena xede. Azken finean, zigorra helburutzat duen instituzio totala da, honen baitan pertsona talde batek denbora tarte garrantzitsuan gizartearekiko isolamendua, giltzaperatzea eta egunerokotasuna partekatzen baitu. Era horretan, hiru printzipio nagusitzen dira kartzelaren baitan: diziiplina, obediencia eta tentsioa.

Askatasuna ukatuta, preso dauden borrokariak neutralizatu, atxiki eta ikusizezin bilakatzea da kartzelaren helburua. Estatuak arriskutsutzat jotzen dituen elementuak zokoratzeko eremua da, kanpoko munduarekiko harremana apurtuta, hauen isolamendua eta izaera arrotza sustatzen delarik bertan. Halaber, etsaiak preso politikoaren gaineko kontrol osoa du espetxean. Era horretan, espetxea estatu modernoaren kontrol sozialerako mekanismoaren baitan kokatu behar da, izaera estrategikoa baitu burgesiarentzat, orden soziala mantentzea eta biolentziaren monopolioa betikotzea ahalbidetzen dion heinean.

Bestalde, kartzelaren helburu nagusiak presoak kontrolatzea eta suntsitzea direnez, zuzeneko zein zeharkako biolentzia ere baliatzen dira honekiko elkartasun oro mozteko xedez. Horren eraginez, presoak ondorio fisiko zein psikologikoak pairatzen ditu, adibidez: zentzumenen asaldura, norberaren irudiaren inguruko asaldura, muskuluak zurruntzea, arazo odontologikoak, gaitz depresiboak eta antsietatea.

Hori gutxi balitz, zuzeneko biolentziaz ere pairatzen dute presoek. Horretarako, funtzionarioak barne-arautegia, diziiplina eta burokrazia baliatzen dituzte edo, bestela, zuzenean presoaren aurka jotzen dute inpunitate eta pribatutasun osoarekin. Horren erakusgarri dira presoari xantaia eta presoia egiteko erabilitako isolamenduak eta parteak; sumisio egoera sustatzeko zigorrak, jipoiak eta drogen sustapena; edota, katxeoak edo mugikortasuna mugatzea.

Horrez gain, ezinbestean aipatu behar da tortura zuria ere, zeharkako biolentziaren baitan kokatzen dena. Tortura zuria presoaren erabateko isolamenduan eta zentzumenen zein estimuluaren ukapenean datza. Presoa bere izaeraren inguruko kontzientziaren jabe ez izatea eta inguruarekiko harremana moztea da honen xedea, presoak suntsituz eta honi gizatasuna kenduz. Honen adierazle dira espetxearen arkitektura eta forma, edota "Ficha Interno de Especial Seguimiento - FIES" bezalako figura, presoaren mugimendu zein komunikazio oro grabatzea ahalbidetzen duena. Gainera, estatuak presoaren arteko zatiketa sustatzeko asmoz, etengabeko desinformazioa eta intoxikazioa bultzatzen ditu, hauen moralari eraso eginez, konfunditu eta damutzeko.



ELKARRIZKETA

Euskal Herriko hiru emakume militante politikok beraiek espetxean bizitako esperientziari buruz hitz egin digute. Agurtzane Ezkerra Perez de Nanclares, 1995-2002 bitartean Carabanchelen, Brievan, Langraitzen, Soto del Realen, Alcala Mecon eta Martutenen egon zen preso. Rosi Arana Txakartegi, 1992tik 1996ra Carabanchel eta Castellonen eta 2000-2002 bitartean, berriz, Soto del Real eta Avilan. Bestalde, Eider Uruburu Zabaleta Frantzian egon zen preso, 2010etik 2014ra maiatzera Fresnes, Lyon eta Fleury eta 2014tik apiriletik 2015era apirilera, aldiz, Fresnesen.

Nola laburtuko zenukete zuen ibilbide militantea?

A. E. P.: Ni oso gazte hasi nintzen, 16 urte baino ez nituelarik eta, hein batean, aitarengatik. Bera komisaldegitik igarota zegoen jada, horrek bere garaian suposatzen zuenarekin.

R. A. T.: Nire ibilbide militantea normaltasun osoz eman zen. Ikastolan ibili ziren umeen lehenengo taldean egon nintzen, eta han ikasi gutxi ikasi nuen. Alde batetik, irakasleak ez ziren profesionalak, handik jende asko pasatu zen eta, bestetik, guardia zibilak ia astero etortzen ziren. Jendearen bila ibiltzen ziren eta dena miatzen zuten. Guk orduan, txiki-txikitatik, 7-8 urterekin, amantala hartu eta ume txikiak euren etxeetara eramaten genituen eta gu etxera joaten ginen. Garai hartan errepresioa oso potoloa zen. Manifestazio latzak egoten ziren: zaurituak, pelotak... Orduan txiki-txikitatik bizi izan dut hori. Hamasei urterekin, berriz, Jarrai-n sartu nintzen, baina dena trantsizio normal bat izan zen. Egoera politikoa zena zen eta nire burua militantzia barruan ikusten nuen argi eta garbi, zalantzan jarri gabe. Hori zen egin behar zena. Eta bizitzan zehar nire ibilbide militantean hartutako erabaki



guztiak normaltasunez eman dira, trantsizio normalak izan dira.

E. U. Z.: Ikastolen mugimendua, alfabetatzea, Lemoizko zentral nuklearra, desindustrializazio prozesua Labe Garaiak eta Euskaldunarekin, iraultza sandinista, gaztetxeak, atxilotetak eta torturak -batzuetan heriotzaraino torturatuak-, Bilboko Alde Zaharreko manifestak, kargak, kanpainak... Txikitatik guzti hori ezagutu nuen eta parte ere hartu nuen gurasoen eskutik. Institutuan jada nire hautuak egiten hasi nintzen: Ikasle Abertzaleak-en sartu nin-

tzen militarizatzen, kuotak ordaintzen, txandak egiten auzoko jaietan... Institutuko Jarrai-n, institutuko ikasleekin eta inguruko ezagunen atxiloteta eta torturak ikastetxean presoan aldeko talde bat antolatzea bultzatu gintuen. Horrez gain, auzoko emakume gazteen taldean, gazte asanbladan, Gestoretan, greba batzordeetan, piketeetan, manifestetan, omenaldietan, ongi etorrietan, jardunaldietan... parte hartu nuen. Gauza guztietan inplikatzeko ginen. Ahal zen bezala laguntzen genuen, errepresio maila eta bortizkeria



dean, berriz, mutil gehiago, edo Santutxuko kasuan denak ziren mutilak. Jarrai konbatiboagoa zen, IA pedagogikoagoa. Jarrai selektiboagoa zen, aukeratu egin behar zintuzten. IA-n aurkezpen irekiekin hasten zen kurtsoa, nahi zuenak militatu zezan. Ezker Abertzalean lan handia egin zen mugimendu feministaren eskutik rol sexistak apurtzeko. Asanblada irekietan gizonezkoen ahotsak ozenago entzuten ziren, parte-hartze handiagoa zegoen mutilen aldetik ekintza ezberdinetan, proportzioak oso ezberdinak ziren eta ardurak ere bai. Neskak zaintza eta mutilak espraiak edo kola baldea eta erratza. Eta bi aldeetatik ematen zen, batzuek ez gintuztelako gai ikusten eta besteok ez ginelako gai sentitzen, edo ez gintuztelako gai sentiarazten. Niretzat Emakume Gazteen Taldeen sorrera oso gauza positiboa izan zen, maila teorikoan eta praktikokoan, kalea gurea ere bazelako eta hartu genuelako. Gure margoketak eta pegadak, gure kanpainak, gure ekintzak... burutzen genituelako inoren baimen, tutela edo "laguntzarik" gabe. Eta horrek ere eskarmentua ematen zizun ekimen mistoetan bat gehiago izateko, konfiantzaz, arduraz. Gazte asanbladan ere oso eroso sentitu nintzen. Gestoretan ere bai, talde misto potentia geneukan eta denok egiten genuen guztia. Eta Erakundean denok berdin. Nortasun ezberdinak baina ez generoaren menpe, sekulako emakume trebeak eta ausartak ezagutu ditut, baita mutilak ere, eta elkartasun eta elkar zaintza handia egon da. Egizanen planteamenduetatik ere oso gertu sentitzen nintzen, bai genero, nazio eta klase zapalkuntzarengatik, eta baita egoera iraultzeko gizonezkoen inplikazioa bilatzen zelako ere.

Militantzia iraultzailearen ondorioetako bat jazarpena da. Nola bizi izan zenituzten zuen atxilotaketak?

izugarriak zirelako. Beste aldetik, autodefentsa potentia ere baze- goen, gogorra, baina testuingurua ere oso gogorra zen. Mundua aldatzera gindoazen, egiten ari ginen, alde guztietatik ematen ziguten egurra, eta gogorra zen. Baina Euskal Herri aske, justu eta antolatu bat genuen ipar eta hain zen ederra proiektua, hain ilusionantea!

Zer suposatu du zuentzat emakume gisa militantzia politikoak?

A. E. P.: Sasoi hartan 70. hamarkada zen, ia frankismoaren amaiera eta jendeak, orokorrean, etorkizun hobe eta bizi baldintza bidezkoagoengatik borrokatzen zuen. Oso urte gogorrak izan ziren.

R. A. T.: Nire garaian, hemen Gernikan, gehienok emakumeak ginen, eta emakume gisa inoiz ez naiz besteengandik ezberdin sentitu. Lehenik Jarrai-n parte hartu nuen, geroago ASK-n, Gestoretan eta komite lokalean, eta beste bat nintzen. Denok parte hartzen genuen eta denen hitza

errespetatzen zen. Kanean, agian, gehiago. Kanean, emakumezkoen eta gizonezkoen jarreretan eta, batez ere, harreman afektiboetan nabaritzen zen desberdintasuna. Gizon militante batek bere harremanak era normalean jorra zitzakeen eta inork ez zuen zalantzan jartzen, nahiz eta bikote zein harreman mota ezberdinak eduki. Emakumeen kasuan, ordea, bai. Niri nolabait arreta deitu izan didate horregatik, eta hor bai ikusi dut matxismoa. Gizonen eta emakumeen sexualitatea desberdin ikusten zen. Baina horri ere aurre egin behar zaio, eta egin nion. Militantzia politikoa, aldiz, beste guztien moduan bizi izan dut, gizonen berdinean, ez da egon inolako desberdintasunik. Barrikadak egin behar baziren, han egoten ginen; pankartak egin behar baziren, han egoten ginen; eta batzarretan ere, han egoten ginen.

E. U. Z.: Militantzian ere genero rolak erreproduzitzen ziren. Institutoko IA-n, adibidez, neska pila bat geunden. Jarrai-ko tal-

A. E. P.: Nire kasuan, borrokan sartu nintzenez gerta zitekeenaren jabe nintzen. Atxiloketa, komisaldegitik igarotzea, erbestea, kartzela eta, egoerarik okerrenean, heriotza. Hala ere, horren kontziente nintzen, orduko jende asko bezala eta, hortaz, harro nago Euskal Herriaren alde borrokatzeagatik. Atxiloketak oso gogorak ziren, gertatuko zitzaizunaren berri ematen zizuten arren, gero errealitatea bestelakoa zen. Ez bakarrik tortura fisikoengatik, kolpeengatik, elektrodoengatik, poltsarengatik, bai-nuontziarengatik... Niretzat, haiek zu psikologikoki suntsituz joatea izan zen txarrena. Azkenean, ez dakizu zer den errealitatea eta zer ez. Nola jokatzaren duten sentimenduekin. Oso gogorra da.

R. A. T.: Lehenengo atxiloketa ez zen erraza izan. Hiru egun atxilotuta egon eta gero, hiru egunetan torturak jasan eta gero, kartzelara sartzen zaituzte eta, alde batetik, lasaitasuna aurkitzen duzu. Ez zaituztela berriz ukituko pentsatzen duzu, leku ziur baten zaudela. Begira zein gogorra den hori pentsatzea. Kartzelaratua zara, ez dakizu zelako eskakizuna edukiko duzun eta, hala ere, komisaldegitik pasa ondoren kartzelan ziur sentitzen zara. Lehenengo hiru egunak modulu berezi batean igaro behar dituzu isolamenduan: zorriak, dutxa... Nirekin batera atxilotu zuten Begoña Ezkerra ere eta niretzat gogorra izan zen bera ikustea. Nahiz eta ezin nintzen ibili, Bego ikusi nuenean eta ikusi nuenean nolako begiak zituen, handituta,

komisaldegian emandako denbora guztia lentillak jantzita eduki ondoren, oso bisuala eta oso gogorra izan zen. Horren ostean, hirugarren edo laugarren egunean, modulura pasatzen zaituzte eta bertan kideekin elkartzen zara. Zeure burua kokatzen duzu apur bat. Torturari buruz ere hitz egin zenezake gainontzekoekin, eta horrek beste ikuspuntu bat ematen dizu.

E. U. Z.: Nire kasuan ez zen torturarik egon, lo egiteko aukera izan nuen... Gogaikarria izan zen baina espainiar estatuan gertatzen zenarekin zerikusirik gabe. Etsipena izan zen, han zaudenean dena ematen duzulako egoera alda dadin. Eta kaiolan sartzen zaituztenean militante izaten jarraitzen duzu, kartzelaren aurrean, formatzen eta irakurtzen jarraitzen duzu, eztabaidatzen... baina ez da berdina. Uste dut ez naizela sentitu sekula sasian baino askeago, ezta espetxean baino baldintzatuago ere. Hala ere, kartzelan aske sentitzeko gaitasuna ere badago, zure nortasuna eta ideiak mantentzen dituzulako, elkartasunez jokatzaren duzulako, euren zigor ziegaz trufatzen zarelako... Eta noski mina ematen duela, senideak, intimitate falta, arruntekiko tratua, injustiziak eta hauek gelditzeko tresna falta, buruaz beste egiten dutenak edo autolesionatzen direnak zainak moztzen edo lixiba edaten... Desesperazio itzela dago. Umore handia ere bai.... Beste fase batera pasatzen zara, sistema kapitalistaren txikizioaren ondorio zuzena ezagutzen duzu. Eta fase berri horretan ere laguntzen jarraitzen duzu, salatzen... etsai zuzenena kartzela da, ez soilik zurekiko edo kideekiko egiten duenagatik, bere osotasunean txikitzailea delako eta gizarteko sektorerik zaurgarriena amorrut jotzen duelako. Nahi dutena egiten dute ondoriorik gabe. Oso krudela da eta amorrut betetzen dizu bihotza, baina baita maitasun eta elkartasunik handienarekin ere, bai kideekiko zein gainontzeko bahituekiko.



Zein izan da militante gisa kartzelan bizitako esperientzia? Nolakoak izan ziren lehen egunak?

A. E. P.: Carabancheletik igarotzea, bost egunetan komisaldegian torturak jasaten egon ostean, salbu egotea bezala izan zen. Okerrena pasatu zen, guztia horrela ez den arren. Carabancheleko emakumeen modulura iristen zara, hautsita, zikin eta gogorik gabe. Bakean uztea nahi duzu, baina ez. Iritsi bezain laster presiozko dutxa ematen dizute, desinfektatu, zorriak kendu... Hitz batez, zoramena. Horren ostean, koarentenan edukitzen zaituzte hiru egunetan, medikuak ikusten zaituen arte eta, gero, kideak dauden modulura joaten zara, besoak zabalik jasotzen zaituztelarik. Txundituta geratzen zara, bat-batean zure berdina pasa duten kideekin aurkitzen zara eta babestua eta maitatua sentitzen zara.

R. A. T.: Niretzat txundigarria izan zen kartzelara sartu eta kartzelako errealitatea ezagutzea. Azkenean gu kartzelara aurrez bizitza "eroso" bat izanda goaz eta, nahiz eta kontzientzia politiko potoloa eduki eta gauzak aldatu behar direla jakin, urrunetik ikusten ditugu gauzak. Eta kartzelara sartzean sekulako kolpea hartzen duzu, miseria benetan zer den ikusten duzulako, zer den benetan drogamenpektasuna, zer den benetan familia desegituratu edo oso oso txiro batean bizitzea. Zer egiten du horrek? Nire kasuan, ni oso kontziente izan nintzen zergatik nengoen kartzelan: gizarte kapitalista hau aldatzeko, ez? Nahiz eta hori beti argi eduki, nik pentsatzen dut momentu horretan askoz ere argiago izan nuela independentzia eta sozialismoa lortu behar genituela guzti hori aldatzeko. Lehenengo egunak kolpe handia dira baina kartzelan egotearen zergatia ikusten duzu, gauzak aldatu nahiaren zergatia, hain zuzen. Errealitate hori ikustea gogorra izan zen niretzat. Gero, kartzelako

bizitza barneratzen hasten zara: kartzelan nola bizi, zer den kideetasuna kartzelan, nola egin aurre kartzelari... Kartzela etsaia da une horretan, eta hori onartu behar duzu lehen egunetan. Apurka-apurka ikasten joaten zara, eta zeure burua kokatzen leku arrotz eta gogor horretan.

E. U. Z.: Fresnesen, Paris inguruan erori nintzen, eta ziegan sartu eta jarraian kideekin mintzatu nintzen, zelako luxua. Zikina heltzen zara, gaez. Dutxara sartzen zaituzte

argia pizten ziguten bizirik geunden jakiteko, eta teorian mugitu behar ginen ikus gintzaten. Hala ere, gure moduluan irabazita geneukan lo egiteko eskubidea. Frantsesez ere ez nintzen ondo moldatzen, oinarritzko apurtxo bat, eta mimika eta irudimen handiz komunikatzen nintzen giltzariekin. Lehen astea ingresotan egin nuen, isolatuta eta kideengandik baztertuta. Baina kideak nire horma berean zeuden, beste puntan eta berehala atera



garbiketa kit batekin. Afari hotza daukan plastikozko bandeja bat daukazu ziegara sartzean. Lo egiteko pilulak eskaintzen dizkizute medikutik pasa gabe. Litera bat bi oherekin, mahaitxo bat, lababoa eta komun bat, telebista bat ere baina deskonektatuta, dena ateko mirillatik kontrolatuta, eta ziegako leihoa patioari begira, harresi batez inguratuta eta zaintza egiten duen garitaren aurrean. Kontrolatuta gau ta egun garitatik, eta nahi dutenean zabaltzen duten ateko mirilla horretatik. Gauean

ziren oihuka, animoak ematera... Biharamunean poltsa pila ailegarazi zizkidaten arrokekin, janariarekin... Gainera, kideetako batekin egoteko debekua ezarri zidaten. Patiora nor jaitsi, aktibitateetara nor joan... erabaki behar izaten genuen ezin genuelako kointziditu, leihotik nahi beste hitz egiten bagenuen ere. Lehen egunetan inpresioa egin zidaten gauetan entzuten ziren desesperazio orroek eta negarrek. Bazen frantziar kolonietako neska bat katastrofe batengatik familia galdu zuena eta erabat hautsi

zena. Ni heldu eta jarraian bere buruaz beste egin zuen.

Nolako da emakumeekiko tratua kartzelan?

A. E. .P. Hasieran zurekiko tratua hotza da, FIES-eko etiketa batekin iristen zarelako, hau da, funtzionarietarako arriskutsua zara. Denetarik dago, zurekin sartzen ez dena eta gogaitzen zaituen betikoa, uneoro zu izorratzeko eta parte edo santzio bat jartzeko modua bilatzen ari dena.

R. A. T.: Adibidez, gizonezkoek zuzendariarekin hitz egiteko aukera izateaz gain, zaintza epailearekin hitz egiteko aukera ere bazuten. Nire kasuan, ordea, Castellonen egon nintzen lau urte horietan, aldi baten baino gehiagotan saiatu nintzen zaintza epailearekin hitz egiten, baina inoiz ez zidan erantzun eta inoiz ez nintzen egon berarekin. Lau urte horietan zuzendariari behin baino gehiagotan esan nion dutxak aldatu egin behar zirela. Zementuzkoak ziren eta zikin pila batzen zen bertan. Orduan bakarrik baldosak jartzea zen kontua, baina lau urtetan ez zidan kasurik ere egin. Handik irten eta egun batzuetara baldosak jarri zituztela zioen berria iritsi zitzaidan. Zer egingo diogu ba, gutxienez baldosak edukitzea lortu zuten.

E. U. Z.: Matxismo handia dago. Frantsesek ez dute onartzen moralaren, bertutearen... zaintzaren arduradunak espetxean egotarik. Beraz, emakume txarrak gara, gaiztoak, balio gabeak, kriminalak... Zaborra. Frantzian bisitak kristal barik egiten dira eta uki zaitezke, baina debekatuta dago ezer pasatzea: jatekoa eta edatekoa sartzea, sexu harremanak izatea... Eta sexu harremanekin permisiboagoak izaten dira mutilen moduluetan, behar fisiologiko natural moduan hartzen dituztelako. Emakumeok ez omen ditugu behar afektibo-fisiko horiek, eta oso gaizki ikusita dago. Gainera, haurdun geratuz gero, beraien bijilantzia falta agerian geratzen da (droga trafikorako,



ihesaldi bat prestatzeko...) eta emakumeon gainean egoten dira matraka ematen. Hain zuzen ere horregatik, haurdunaldi batek agerian uzten duelako hutsegite hori.

Nola islatzen da sexu-genero zapalkuntza espetxe eremuan? Nolakoak dira emakumeen espetxe moduloak?

A. E. P.: Kartzelako bizitza epaileak jartzen dizun graduaren arabera. Lehenengo gradua isolamendu hutsa da. 23 ordu ziegan eta 2 ordu patioan. Ez duzu kontakturik kartzelaria ez den beste inorekin. Bigarren gradua

bizitza normala da eta, hortaz, zurekin moduluan dauden emakumezko kide guztiekin egon zaitezke eta baita emakume preso sozialekin ere. Patiorako sarbidea daukazu eta ekintzak ere badaude. Kartzelak gizonentzat pentsatuta daudenez gero, emakumeentzako eskasa da kartzela. 80. eta 90. hamarkadez ari naiz, gaur egun gauzak aldatu dira baina ez dut uste hobeberehaz izan direnik. Orduan behintzat emakumeen modulua zegoen kartzela batzuetan, gehienetan gutxieneko espazioa zuten departamenduak ziren. Ziegak sei pertsonaz betetzen ziren eta baita zortzirekin ere,



Emakumeak azkenak uzten gaituzte, edo zuzenean ezer barik. Amatasunean ere badu eragina. Haurdunaldiaren ez dakit zenbatgarren hilabetea, ama beste presoengandik isolatzen dute barnean dagoen txikia "babesteko". Horrek esan nahi du aktibitaterik gabe gera daitekeela espetxea txikia bada, eta ez badago beste amarik momentu horretan, bakar bakarrik igarotzen duela eguna. Lyoneko espetxea horrela zen, futbol zelaia bakarrik mutilentzako zen, euren moduluen aurretik pasatu behar ginelako eta oihuka hasten zirelako. Polikiroldegira asteen behin ordu-betez joan gintezkeen, mutilek askoz aukera gehiago zeuzkatelarik. Emakumeen amatasun eremuak 4 ziega zituen, baina askotan ama bakarra zegoen, 40m2-ko patio batekin. Erditu ostean aktibitateen batera joan nahi bazuen, aukera zeukan baldin eta horretarako aukeratuta zegoen beste preso bati haurra zaintzan uzten bazion. Urte ta erdiz izan dezakezu haurra zurekin. 24 orduz zu bakarrik umetxo batekin, eta hitz egiteko heldu batekin egoteko aukerarik gabe, izugarri gogorra da.

Zein borroka eraman dituzue aurrera militante gisa kartzela barruan?

A. E. P.: Kartzelako borrokak barruko egoeraren arabera dira. Adibidez, kide batek funtzionarioarekin arazo bat izan du edo kontsulta medikoa ukatu diete, edo kide bat iritsi da beste kartzelatik, baldintza ezin kaskarragoetan edo lekualdatzean pikoloengatik mehatxatua izanik, etab. Era horretan, larritasun mailaren arabera borrokak burutzen dira, besteak beste, gose grebak, txapeoak, barauak, enkarteladak...

R. A. T.: Militante gisa borrokak modu desberdinetan ematen dira kartzelan. Alde batetik, kalean ematen diren borrokekin lotutako borrokak daude eta, bestetik, kartzela guztietan kolektibo moduan egiten diren borrokak.

denak batera ia espaziorik gabe, komun batekin eta ezer gutxi gehiago. Patioa bera ere patioa izan beharrean pasillo bat zen eta ez zen ia eguzkirik sartzen. Egiten ziren ekintza urriak jangelan egiten ziren ez zegoelako leku gehiagorik. Kartzela bat beste kartzela baten barruan, hori ziren emakumeen moduluak

R. A. T.: Hori kartzelaren arabera da. Emakumeen kartzela batean bazaude ez dago inongo istoriorik. Kartzelan zaude, denak emakumeak dira eta kitto. Baina gizonezkoen kartzelan bazaude eta modulu txiki batean bizi bazara, bizi edo, hor bai gehiago igartzen dira desberdintasunak. Adibidez, gizonezkoek

aukera gehiago dituzte informatikako edo bestelako kurtsoak egiteko, eta horrekin lan bat edo ikasketa batzuk egin ditzakete. Guk Castellonen, aldiz, makrame edo sukaldaritza kurtsoak egiteko aukera izaten genuen soilik. Oso sexista zen, ezta? Emakumezkoek emakumezkoen gauzak eta gizonek dena. Harremanei ere erreparatuz, gizonezkoen kartzelaren baitan emakume modulu baten bizitzea ghettoaren ghettoan bizitzea da.

E. U. Z.: Espetxeak normalean gizonezkoentzat pentsatuta daude eta askotan apendizetaz batzuk txertatzen dituzte emakumeentzat. Kirol ekipamenduak, erizaindegia, ekitaldiak, bisitak...

Adibidez, ni Castellonen nengoela, Santo de Negron gose greba potoloa egiten ari ziren. Jipoituak izan ziren eta oso gaizki pasa zuten. Jipoi horietako baten ondorioz, Iñaki Bilbao, Txikito, hortik aurrera giltzurrunetako arazoak izaten hasi zen. Horren aurrean, beste kartzeletan borroka ezberdinak eramaten genituen aurrera. Gose grebak, enkarteladak, bazkariari uko egitea, txapeoak... Txapeoa ziegan geratu eta ez zarela jaitsiko esatean datza eta horrek parte edo santzio bat ekartzen zuen. Bestalde, kartzela barruko borrokak zeuden. Kartzela barruko egoera edota zerbait borrokatzeko egon zitezkeen premiei erreparatzen zitzairen, eta horren arabera adostu eta kartzela barruan egiten zen borroka. Borroka molde guztiak militante moduan egiten ziren, bai kartzelara begira egiten zirenak, bai kalera begira egiten zirenak. Zu kartzelan zaude eta militante zara, eta militante gisa zure eskuetan dituzun tresnak erabili behar dituzu agertzen den guzti hori saihesteko.

E. U. Z.: Bazka errefusak, hau da, espetxeko janariari uko egitea protesta gisa ziegan geneukana janez, estatus politikoa aldarrikatzeko kontzentra hilabetero, 24 orduko baraua bizi osoko espetxe zigorra zutenen egoera salatzeko, 3/4ak beteak zituztenena... Gose grebak, plantoak ziegara bueltatzeari uko eginez, zigor ziegetatik ateratzeari uko egin... Emakumeen aldean oraindik eraginkorragoa zen azken hau, zigor ziega gutxi zeudelako eta denak sartuz gero blokeatu egiten genituen, ezin baitziren beste neskak bertan zigortu eta espetxearen txikizio tresna indargabetzen genuen. Ekimen guztiak idatziz ematen genizkien arduradunei, epaileari eta ministeritzari igorri behar zizkietelako. Horrek de facto ekimen kolektiboa bilakatzen zuen, espetxean erabat debekaturata dagoena. Ekimen batzuk momentu berean Frantziako eta Espainiako espetxe guztietan burutzen genituen hilabetero, kolektibo bat ginelako estatus hori

onartu nahi ez baziguten ere. Hau da, ez genuen gure burua "delitugile" bezala ikusten, euren kode penala, euren legedia osoa betetzen ez zuten lehenak beraiek zirelako. Gobernu ez demokratikoek, torturatzaile, zapaltzaile, psikopata zikinek ez gintuzten gu epaituko demokrazia formal baten itxura eginez. Gu preso politikoak ginen, borrokara eramán gintuzten arrazoiak politikoak zirelako, demokrazia ezaren ondorio, iruzurrezko zuzenbide estatu faltsu horren ondorio. Horregatik egiten genuen amnistiaren aldarria.

Zuek, emakume gisa, zein zailtasun aurkitu dituzue kartzelan osasunaren arloari dagokionez?

A. E. .P. Osasunari dagokionez, etengabeko borroka genuen. Izan ere, ospital batera eramateko eskatu behar zenuen eta gero kustodia poliziala, eta behin dena lortuta, funtzionarioarekin borrokatu behar zenuen katxeoaren-gatik. Ostean, polizia. Kontsultara iristen zinen eta betiko borroka medikuarekin eta poliziarekin. Haiek presente egon behar zirela zioten eta zu medikuaren eta pazientearen arteko pribatutasuna



Bere bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago



balasarekin. Medikuari esan nion ea horrekin ados zegoen, ez zirela baldintza duinak eta horrela ez nuela kontsultarik egingo. Medikua, harrotuta, berak hori nahi zuela, ez zekiela ni nor nintzen, beldur zela, eta ez zuela gutxiago onartuko. Bisita bertan behera utzi eta espetxera bueltatzea eskatu nuen. Zurrumbilo baten ostean, txakurrak kanpora aterata, giltzaria geratzea eta eskuburdinekin egotea onartzen banuen begiratu ninduela esan zidaten. Ekografia hori garrantzitsua zenez onartu egin nuen. Gerritik behera biluztu eta eskuburdinak jarrita, sabeletik pasatu zidan makina. Modu txarrean eta haserre, txakurra aterarazi nuelako. Makinak ez zuen irudia ondo hartzen eta hanken artean beste tresna bat sartu behar zidala esan zuen. Buf, ba aurrera... eta kolpe batean sartu zuen, bortizki, sasikume akojonatu lerda nazkagarriak. Malaostian egin zuen, ni lasai egon nintzenean momentu oro. Profesionaltasun falta izugarria. Hau guztia esateko txikia ikusten zela, baina bihotz taupadarik entzun ez. Makinaren arazoa izan zitekeen edo haurdunaldia etenda egotea. Horrelako beste irteera bat egin behar izan nuen haurdunaldia etenda zegoela konfirmatzeko, eta beste hirugarren bat legrado bat egiteko, gorputzak ez baitzuen berez ateratzen. Kamila batera lotu ninduten beso eta hanketatik, indarrez, eta anestesia lokala eskatu nuen arren, osoa jarri zidaten nire borondatearen kontra. Esnatu nintzenean giltzari subnormal batek esan zidan berak dena ikusi zuela eta lasai egoteko. Kirofano batean? Lotuta daukaten pertsona batekin, sedatuta? Zer egiten du hor nire interbentzioa ikusten kartzelera miserable batek, nire baimenik gabe? Haserre eta izorrotuta bueltatu nintzen, eta umiliatuta, gorroto sakonarekin.

Espetxean badira hartu beharreko erabaki ezberdinak, horien artean, ama izatea. Nola bizi izan duzue zuek amatasunaren afera?

aldarrikatzen. Batzuetan ongi ateratzen zen. Beste batzuetan, ordea, uko egin behar zenion kontsultari eta kartzelara itzuli, ezin zenezakeelarik ezer egin, inpotentzia eta amorrua sentitzea besterik ez.

R. A. T.: Hor bai ez dudala ikusten gizon eta emakumeen arteko desberdintasunik. Beno, guk ginekologikoki behar batzuk eduki genitzake edo errebisio konkretu batzuk arazoak egon litezkeelako. Baina gizonezkoek ere beste arazo batzuk izan dituzte. Ezagutzen ditugu osasun arazoak izan eta azkenengo muturrera arte hor utzi dituzten kideak, ezta? Nire kasuan, Castellonen mediku zuzendaria izan zen nire ginekologoa. DIU bat nuen ipinita eta kendu egin behar nuen. Ginekologoa mozkortuta

etorri zen DIU hori kentzera, eta ezin ezer esan, zeren ezin duzu esan beste mediku bat nahi duzunik, ez baitago beste medikurik. Ez dago. Ezin duzu eskatu kalera ateratzea nahi dut, ospitalera ateratzea nahi dut, ginekologoa kartzelan baitago. Egin beharrekoa egiten duzu eta kitto.

E. U. Z.: Haurdun geratu nintzen kartzelan, nahita. Ospital publiko batera eraman ninduten espetxeko giltzariet baina kriston despliega muntatu zuten: enkaputxatuak, fusilak, balen aurkako txalekoak, mikroak... Dena hartuta, kalea, itxaron gela, ni eskuburdinekin eta bultzaka... Medikua gelan medikua, giltzari emea eta txakur emea bere fusila, pinganillo eta anti-



A. E. P.: Amatasunaren gaia korapilatsua da. Nik ulertzen dut ama izateko nahia baina zeren ordainetan? Nik beti argi izan nuen borrokan sartu nintzean ez nuela umerik nahi, ezingo nituzkeelako hezi. Familiak ni edukitzearekin nahiko ez eta gero nire seme-alabak heztera bidaltzeko moduan. Kartzelan kide ezberdinekin hitz egin nuen eta iritzi ezberdinak zeuden.

R. A. T.: Hori erabaki pertsonala da. Horretan bai ikusten dut, adibidez, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna. Gizonezkoek orokorrean "errazago" eduki dute, gehienek emakumea eduki baitute kanpoan. Emakumea, familia, etab. Orduan, umeak eduki dituzte, eta emakumea zein familia arduratu dira. Emakumeek barruan? Ba nik argi izan nuen ez nuela umerik izango, niretzat oso gogorra baitzen pentsatzea ume bat barruan heztea eta hiru urterekin banatzea. Ez, ez nuen ikusten. Beste emakume batzuek egitea ondo ikusten dut. Esan nahi dudana da, norberak ikusi behar duela zer dagoen emateko edo egiteko prest. Niretzat ezinezkoa zen, ezinezkoa. Ez nuen ikusten. Ez, ez.

E. U. Z.: Oso erabaki pertsonal eta serioa iruditzen zait. Zaila. Hori ere kendu behar digute? Guraso izateko eskubidea? Umea eta

senideak baldintzatzea denez ez izatea erabakitzen dute batzuek, arrazoi osoz. Beste batzuok, aldiz, argi geneukan eskubide hori ere ez zigutela lapurtuko. Nik bi hautuak errespetatzen ditut eta haurrak izateko eskubidea, amatasun eta aitatasun eskubideak borrokatu behar zirela ikusten nuen. Gaur egun haurrak izateko dauden baldintzak izugarri eskasak dira. Gainera, haurrekin edo haurrik gabe, bikotea Frantzian badago eta bietako bat atera eta Hegoaldekoa bada, lurralde debekua ezartzen zaio. Ezin du estatu frantsesa zapaldu bizi osoan, ezin bikotea ikusi espainiaratua izan edo libre atera arte. Eta umeak ezingo ditu elkarrekin ikusi hori gertatu arte. Eta guk, zorionez, senide eta lagunak babesa daukagu. Kartzelan ama askori haurrak lapurtzen dizkiete, adopzioan ematen dituzte eta bisita eskubideak gauzatzea izugarri zaila izaten da, askotan ezinezkoa. Tutela galtzen dute erarik traumatikoenean. Adibidez, Mongoliako nekazal ingeniari bat bere haurra adopzioan ematera derrihortu nahi zuten. Askatasunaren eta deportaziaren truke xantaia egin zioten. Eutsi zion, ez zuen xantaia onartu eta gose greba mugagabe bat abiatu zuen. Esnea zeukan titietan atxilotu eta haurraren gandik bereizi zutenean, hilabeteetako haurra.

Bada militantzia politikoa bizitzeko era bat dela eta preso egotea egoera bat dela esaten duenik. Zer uste duzue baieztapen honetaz?

A. E. P.: Nik beti pentsatu dut militantea dena hala dela kalean, erbestean edota kartzelan. Bakoitzarengandik harago doan konpromisoa da. Dena ematen duzu, bizitza eta guzti behar izanez gero.

R. A. T.: Militantzia ez da kartzelan amaitzen. Kartzelan militantzia eredu ezberdin bat dago baina militante izaten jarraitzen duzu. Azkenean berdina eta ezberdina

da. Izan ere, zu militante zarenean militante zara edozein lekutan eta zure bizitzaren arlo guztietan. Militante izan behar zara bestee-kiko harremanetan ere. Harreman solidarioetan, militante izan behar zara. Ezin zara sozialista eta enpresari izan. Ezin da. Enpresari bazara, enpresari militante izan behar zara sozialista izateko, adibidez. Hau da, erakunde baten edo mugimendu baten militatzen hasten bazara, hori zure bizitzaren esparru guztietara zabaltzen da. Militante zara kartzelan, kalean, lagunekin, familiarekin eta baita ezezagunekin. Beti zara militante, beti. Nahiz eta bakoitza ama eta aita batena izan, oinarrian militantea izan behar zara.

E. U. Z.: Bai, erabat ados. Militantzia politikoa bizitzeko era bat da, ez gaitu denok leku berdineran eraman behar. Batzuek betidanik izan dute argi non militatu nahi zuten eta beste batzuek bizitzak ekarri gintuen hona. Eta preso egoteak bahitua egotea suposatzen du, ez garaitua. Irakurtzen, ikasten, eztabaidatzen eta aktibo mantentzen zara berdin berdin, Euskal Herria ipar, zure inguruko injustiziekin ere inplikaturik. Kartzela munstro erraldoi bat da, mina ematen du, handia. Baina borroka kolektibo baten parte sentitzen zarenean, ipar horrekin sartzan zarenean, horrek ematen duen elkartasuna, maitasuna eta indarra hain da handia, espetxeak zure ideietan berresten zaituela. Horren kontra borrokatzeagatik sartu zintuzten preso. Espetxea munstroaren beste adierazpen bat da, baina borroka berdina da.



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com